

Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Babes Aginduaren  
Ezarpenerako Segimendu Batzordea

**ETXEKO INDARKERIAREN**  
**BIKTIMEN BABESERAKO**  
**JURISDIKZIO-ORDENA**  
**ZIBIL ETA PENALEN**  
**ARTEKO KOORDINAZIO**  
**PROTOKOLOA**




BOTERE JUDIZIALEKO KONTSEILU OROKORRA





ESTATUKO FISKALTZA OROKORRA



ABOKATUTZAKO  
KONTSEILU OROKORRA



PROKURADOREEN  
KONTSEILU OROKORRA



GOBIERNO DE CANARIAS

JUNTA DE ANDALUCÍA

COMUNIDAD DE MADRID

NAFARROAKO GOBERNUA

## **AURKIBIDEA**

|  |          |
|--|----------|
| <b>HITZAURREA .....</b>  | <b>3</b> |
| LEHENENGOA.- MINISTERIO FISKALA.....   | 6        |
| BIGARRENA.- ABOKATUAREN LAGUNTZA.....  | 6        |
| HIRUGARRENA.- ELKARGUNEAK.....   | 7        |
| LAUGARRENA.- INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA BIKTIMAREN ARRETARAKO BULEGOAK.....  | 8        |
| BOSGARRENA.- BABES AGINDUAREN BAITAN NEURRI ZIBILAK HARTZERAKOAN EPAILE PENALARI ERAGITEN DIZKIOTEN GAIAK.....                     | 8        |
| 5.1.- <i>Adingabeko seme-alaben audientzia</i> .....   | 8        |
| 5.2.- <i>Biktimaren babes, babes agindua tramitatu bitartean: urruntze kautela-neurria</i> .....                                   | 9        |
| 5.3.- <i>Janari prestazioa</i> .....   | 9        |
| 5.4.- <i>Biktimari informazioa ematea</i> .....  | 11       |
| 5.4.1.- <i>Jarduerak eskaintzea: jokabide osagarriak</i> .....   | 11       |
| 5.4.2.- <i>Babes agindua ebasten duen autoaren jakinarazpena</i> .....   | 12       |
| SEIGARRENA.- JURISDIKZIO-ORDENA ZIBILAK BIKTIMARI EMATEN DION BABESA .....   | 13       |
| 6.1.- <i>Lehenengo Instantziako Epaitegiak edota Familia Epaitegiak neurri zibilak berrestea, aldatzea edo indargabetzea</i> ..... | 13       |
| 6.2.- <i>Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Epaitegi zibilen edo familia Epaitegien jarduerak</i> .....                      | 13       |
| 6.2.1.- <i>Jurisdikzio-ordena zibilaren papera</i> .....   | 13       |
| 6.2.2.- <i>Epaitegi zibilak etxeko indarkeria egoera baten berri izatea</i> .....  | 14       |
| ZAZPIGARRENA.- ORGANO JUDIZIAL PENAL ETA ZIBILEN ARTEKO KOORDINAZIOA.....  | 15       |
| 7.1.- <i>Organo judizial zibilak aurretiaz adostutako neurrien aldaketa</i> .....  | 15       |
| 7.2.- <i>Aurretiazko prozesu zibilik ez egotea</i> .....   | 16       |
| ZORTZIGARRENA.- TRESNA JURIDIKOEN ETA LANKIDETZA PROTOKOLOEN BIDEZKO GARAPENA.....   | 17       |

## **HITZAURREA**

-I-

Indarkeriaren kontrako emakumeen babesaren inguruko apirilaren 31ko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen (2002)5 Gomendioak biktimen segurtasun osoa eta babesa bermatzeko politika nazionalak berrikusteko beharrezko azpimarratzen du (3-a atala), eta horretarako tartean dauden erakunde guztien arteko kooperazioa bermatu beharra nabarmentzen du (58-e atala).

Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak etxeko indarkeriaren biktimei jarduera arin eta koordinatu bidez emandako babesa indartzeko xedea duen tresna berri bat sortzen du. Babes Aginduak eraginkortasun handiagoa izateko, neurri handi batean, modu batera edo bestera ahultasun egoera berezi batean dauden biktimen interes eta eskubide zilegiak babesteko euren esfortzua eskaintzen duten guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

Errealitate honetaz jabeturik, 27/03 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoak ondokoa ezartzen du: Segimendu Batzordeari dagokiola “Legean arauturiko babes aginduaren ezarpen orokorreko irismena duten Protokoloak garatzea, eta baita Epaille, Auzitegi eta eskumena duten Administrazio Publiko guztiek harturiko babes eta segurtasun neurrien eraginkortasuna bermatzeko koordinazio tresna egokiak garatzea ere”.

Bestalde, Segimendu Batzordeak onartutako Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Babes Aginduaren Ezarpenerako Protokolo Orokorrek jurisdikzio-ordena zibil eta penalen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratzen du.

- II -

Bi jurisdikzio-ordenen arteko koordinazioaren xede nagusia biktimari babes osoko marko bat eskaintzea da, ebaspen kontraesankorrak egotea ekidinez; Epaitegi zibilei etxeko indarkeria gaietan Instrukzio Epaitegiek burututako jardueren berri egokiro emanaz, egokienak izan daitezkeen ebaspenak hartzearen alde eginez; eta, epe legalen barruan, dagokion Babes Aginduaren baitan (Prozedura Kriminaleko Legaren 544 hiru. artikulua 7. ataleko 2. paragrafoa) ebatsitako neurri zibilen berrespena, aldaketa edo indargabetzeari buruzko erabakia hartzea erraztuz Epaitegi zibilari.

Koordinaziorako lehenengo elementu bat biktimari berari buruz edo familia nukleoari buruz emandako erabaki judizialen ezagutza arina izatea da, eta horretarako garrantzizkoa da Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Zentralak funtzionamendu egokia izatea, Prozedura Kriminaleko Legaren 544 hiru. artikulua 10. atalean aurreikusitakoaren arabera.

- III -

Protokolo honek ondokoa aitortzen du: batez ere Familia gaietan espezializatutako Epaitegi bat denean, bai deklarazio fasean bai sententziaren exekuzio fasean, prozesu zibila ezagutzen duen organo zibila organo penala baino leku hobean dagola neurri zibilak (esate baterako, bizilekuaren erabilera eta gozamenari dagozkienak, seme-alaben zaintza, bisita, komunikazio eta egonaldiak dagozkienak, eta janari prestazio erregimenari dagozkionak) hartzeko. Modu honetara, Babes Agindu baten baitan neurri zibilak ebasten dituen Epaitegi penalaren jardura Prozedura Kriminaleko Legaren 544 hiru. artikuluan araututako "babes aginduren bat eskatzen duen biktimaren arrisku egoera objektiboan" oinarritutako larrialdizko arrazoietan oinarritzen da.

**- IV -**

Protokolo honen irizpide eta printzipio askok biktimari eskaintzen zaion informazioa hobetzeko helburua dute, horrela biktimizazio sekundarioa deiturikoaren ondorioak arintzeko asmoz. Horrela bada, ez da soilik Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 9. atalean zehazturiko ildoan sakontzen, aitzitik, 2002ko apirilaren 16an Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkuran Talde Parlamentario guztiek aho batez onartutako *Justiziaren aurrean Hiritarrek dituzten Eskubideen Gutunari* eraginkortasuna ematen laguntzen du.

**- V -**

Abokatuaren laguntza defentsa eskubidearen eraginkortasunerako (Konstituzioaren 24. artikulua) eta bidezko epaiketarako (Giza Eskubideen Hitzarmen Europarraren 9. artikulua) funtsezko tresna bezala eratzen dela kontuan izanik, botere publikoek bai inputatuari eta bai biktimari aipaturiko abokatu laguntza hori bermatzeko baldintzak ezarri behar dituzte.

Protokolo honek Abokatuaren laguntza bidezko defentsarako eskubidearen eraginkortasun handiagoa ahalbidetzen duten elementu ezberdinak jorratzen ditu, bereziki neurri zibilak eskatzen diren balizko kasuetarako.

**- VI -**

Arestian aipaturiko guztiagatik, Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak ondoko irizpideak ezartzen ditu jurisdikzio-ordena zibil eta penalen arteko koordinaziorako, etxeko indarkeriaren biktimak egoki babesteko helburuarekin.

## **LEHENGOA.- MINISTERIO FISKALA**

Jurisdikzio-ordena zibil eta penalen arteko koordinazioan, eta baita hauen eta laguntza eta gizarte-babeserako administrazio organoen arteko koordinazioan, Ministerio Fiskalak izango duen eginkizun nabarmena aitortzen da. Azken eginkizun honek garrantzi handia du arrisku egoeran edo babesik gabe dauden adingabeekin zerikusia duten jardueretan.

Arestian aipaturikoa burutzeko, garrantzitsua da Fiskaltza bakoitzaren baitan Guardiako Fiskalaren, adingabekoen babesarekin lotutako eginkizunak dituztenen eta familia gaiak ezagutzen dituzten Epaitegi zibiletara atxikita daudenen arteko koordinazioa bultzatzea.

## **BIGARRENA.- ABOKATUAREN LAGUNTZA**

Defentsarako eskubidearen eraginkortasun handiagoa ahalbidetzeko komenigarria da:

- a) Etxeko indarkeriaren biktimari laguntza ematen dion Abokatu Familia gaietan espezializatua izatea, Hirutarren Eskubideen Gutunaren 40 eta 41. atalek baieztatutakoaren arabera.
- b) Babes Aginduarekin zerikusia duen audientzian zehar biktimak Abokatuaren laguntza izatea, bereziki izaera zibileko neurriak eskatzen direnean.
- c) Eta babes agindua ebasteko audientzian parte hartzen duen Abokatu organo judizial zibilaren aurrean burutuko diren ondorengo jardueretan parte hartuko duen abokatu bera izatea, bai deklarazio fasean, exekuzio fasean zein geroko gertaeretan.

Legediak ezarritakoaren arabera, babes agindua ebasteko audientzia biktimak oraindik Abokatuaren laguntzarik ez duenean ere egin ahal izango da, nahiz eta abokatuaren laguntzak defentsarako eskubidearen eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko duen.

Halaber, defentsarako eskubidea eta prozesuan zehar parte bien arteko berdintasuna izateko eskubidea bermatzeko garrantzitsutzat jotzen dira: bai 1/1996 Legearen 6.3 artikularen (Doako Laguntza Juridikoa arautzen duena) erabilera eta bai Lege beraren 21. artikuluan ofiziozko Abokatuaren eta Prokuradorearen izendapena arintzeko aurreikusitako tresnaren erabilera.

Batzorde honetan ordezkaturiko erakundeek eskumena duten Administrazio publikoekin (Justizia Ministerioarekin, Justizia arloan eskumena duten Komunitate Autonomoekin eta Abokatuen Elkargoekin) beharrezko gestioak egiten hasteko konpromisoa hartzen dute, ofizio txandak eta etxeko indarkerian espezializatutako guardia zerbitzuak sortu eta bultzatzeko, eta baita dagokien bitartekoak jartzeko ere.

## **HIRUGARRENA.- ELKARGUNEAK**

1.- Guardia lanetan dauden Instrukzio Epaitegiek dagokien Elkarguneko edo xede bererako sorturiko beste lekuren bateko zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, babes agindu baten baitan harturiko neurri zibilen exekuzioan dauden seme-alaben zaintza, bisita, komunikazio eta egonaldi erregimenarekin zerikusia duen jardueraren bat egokiro gauzatzeko guztiz beharrezkoa den kasuetan.

2.- Elkargune edo antzeko espazio bat baino gehiago duten barruti judizialetan, Instrukzio Epaitegia adingabekoaren bizilekutik gertuen dagoen elkargune edo antzeko espazioaren zerbitzuak erabiltzen ahaleginduko da.

3.- Batzorde honetan ordezkaturiko erakundeek beharrezkotzat jotzen diren barruti judizialetan Elkarguneak sortzeko, edota jada badaudenen funtzionamendua hobetzeko, eskumena duten Administrazio publikoekin beharrezko gestioak egiten hasteko konpromisoa hartzen dute.

4.- Beharrezkoa den lekuetan, Epaitegien eta bertan dauden Elkarguneen arteko harremanak arautzeko Protokolo bat ezarri ahal izango da; dagokion Epailen Batzordeak proposatu beharko du eta Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoak onartu beharko du; eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari beronen berri eman beharko zaio.

## **LAUGARRENA.- INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA BIKTIMAREN ARRETARAKO BULEGOAK**

Komenigarria da babes aginduari buruzko baldintza, tramitazio eta ondorioen inguruan, eta baita beronek prozesu penalean duen esku-hartzearen inguruan eta beronen ibileraren inguruan ere, biktimari informazioa eskaintzera bideraturiko mekanismoak perfektionatzea.

Justiziaren aurrean Hiritarrek dituzten Eskubideen Gutunaren 22. atalean ezarritakoa kontuan hartuz, eta 2003ko uztailleko Protokolo Orokorrek Biktimen Arretarako Bulegoei aitorturiko paper garrantzitsua kontuan izanik, garrantzizkoa da aipaturiko Bulegoen eta babes aginduarekin zerikusia duten jarduerak burutzen dituzten organo judizialen (penalen zein zibilen) arteko harremanak arautzea.

## **BOSGARRENA.- BABES AGINDUAREN BAITAN NEURRI ZIBILAK HARTZERA KOAN EPAILE PENALARI ERAGITEN DIZKIOTEN GAIK**

### **5.1.- Adingabeko seme-alaben audientzia**

Adingabeko seme-alabek hamabi urte baino gehiago dituztenean, edota adimen nahikoa dutenean, familiaren egoerari buruzko eta indarkeria gertakariak benetan gertatu direla ziurtatzeko datu garrantzitsuak eman ditzakete. Kasu hauetan, guardiako Epailak erabaki ahal izango du bidezkoa den adingabekook entzutea ala ez: urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoen arabera, Kode Zibileko 92.2º artikuluan eta Prozedura Zibileko Legearen 770 4º artikuluan ezarritakoen arabera, eta baita Justiziaren aurrean Hiritarrek dituzten Eskubideen Gutunaren 27. atalean ezarritakoen arabera ere.



Adingabekoaren agertzea, bidezkoa baldin bada, bere egoerara eta garapenaren bilakaerara modu egokian moldaturik burutuko da, organo judizialen aurrean bere presentzia behin eta berriz eskatzea saihestuz, eta bere agerpenerako elementu teknikoak erabili ahal izango dira: esate baterako, zirkuitu itxiko telebista, bideokonferentzia edo antzekoak (Justiziaren aurrean Hiritarrek dituzten Eskubideen Gutunaren 26. atala). Halaber, erasotzailearen eta biktimaren, euron seme-alaben eta familiako gainontzeko kideen arteko liskarrak saihesteko neurri aproposak hartu beharko dira (Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 4. ataleko 3. paragrafoa).

### **5.2.- Biktimaren babesa, babes agindua tramitatu bitartean: urruntze kautela-neurria**

544 hiru. 4.4º artikulua azken aipuaren arabera, "instrukzio epaileak 544 bis artikuluan aurreikusitako neurriak har ditzake kausaren tramitazioaren edozein unetan".

Beharrezkoa da azpimarratzea Prozedura Kriminaleko Legearen 544 bis artikuluan aurreikusitako urruntze kautela-neurria hartzeak biktima babes aginduaren tramitazioan zehar babesteko joka dezakeen funtzioa, prozesu penalaren hasieratik aipaturiko aginduaren inguruan erabakia emango duen autoa ebatsi arte.

Bestalde, PKLE 544 bis artikuluko neurriak eraginkorrak izan daitezke biktimari babesa emateko ondoko balizko kasuetan: behin babes agindua erabakitzeko audientzia finkatu denean baina salatutako erasotzailea aurkitzen ez delako aipaturiko audientzia ospatu ezin daitekeenean.

### **5.3.- Janari prestazioa**

1.- Janari prestazio bat ezartzeak babes efektu garrantzitsua suposatzen du biktimarentzat eta bere familiarentzat balizko etxeko indarkeria kasuetan.

2.- Janari prestazioarekin loturiko izaera zibileko neurriak hartzeko orduan, garrantzitsua da guardia Epaitegiak familia nukleoaren ahalmen ekonomikoaren inguruko datuak azkartasunez eta arintasunez ezagutzea ahalbidetzen duten formulak ezartzea, batez ere bitarteko informatizatu edo telematiko bidez; horretarako, egokia litzateke hitzarmen berriak edota bestelako tresna juridikoak ezartzea edota jada existitzen direnen<sup>1</sup> aplikazioan sakontzea.

---

<sup>1</sup> Une honetan indarrean dauden BJKO-k

sinaturiko hitzarmenak ondoko hauexek dira:

- ?? \* B.J.K.O.-ren, Eusko Jauriaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailen, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Marinako Gizarte Institutuaren arteko 2003ko ekainaren 27ko Lankidetzaren Hitzarmena, Epaileei eta Auzitegiei datuak emateko arloan.
- ?? \* 2003ko ekainaren 18ko Lankidetzaren Hitzarmena B.K.K.O.-ren eta Estatistika Institutu Nazionalaren artean, errodari loturiko informazioa Epaitegiei eta Auzitegiei emateko arloan.
- ?? \* B.J.K.O.-ren, Kanariar Autonomia Komunitateko Gobernuaren Presidentzia eta Berrikuntza Teknologikoko Sailen, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Marinako Gizarte Institutuaren arteko 2003ko martxoaren 17ko Lankidetzaren Hitzarmena, Epaileei eta Auzitegiei datuak emateko arloan.
- ?? \* B.J.K.O.-ren, Galiziako Xuntako Justizia, Barne-arazoetako eta Administrazio Lokaleko Sailen, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Marinako Gizarte Institutuaren arteko 2003ko martxoaren 17ko Lankidetzaren Hitzarmena, Epaileei eta Auzitegiei datuak emateko arloan.
- ?? \* B.J.K.O.-aren, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Barne-arazoetarako Sailen, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Marinako Gizarte Institutuaren arteko 2003ko martxoaren 17ko Lankidetzaren Hitzarmena, Epaileei eta Auzitegiei datuak emateko arloan.
- ?? \* B.J.K.O.-aren, Justizia Ministerioaren, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Marinako Gizarte Institutuaren arteko 2003ko martxoaren 17ko Lankidetzaren Hitzarmena, Epaileei eta Auzitegiei datuak emateko arloan.
- ?? \* Palmako Udalaren eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren arteko 2002ko abenduaren 13ko Hitzarmena, Palmako Epaitegietako Bulego Judizialen bitartez errolda datuak kontsultatu eta inprimatzeko, beronen beharra duten prozedura judizialei erroldaren inguruko informazioa gehitzeko.
- ?? \* Erregistroen Zuzendaritza Orokorraren, Notarioaren eta Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren artean 2000ko maiatzaren 10ean eginiko Ibilgailuen Erregistroaren eta Ondasun Higigarrien Erregistroaren arteko interkonexio informatikoari buruzko Hitzarmenarentzako 2001eko maiatzaren 17ko Gehigarria.
  - ?? \* Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren eta Erregistroen Zuzendaritza Orokorraren eta Notarioaren arteko 2000ko maiatzaren 10eko Hitzarmena, ibilgailuen Erregistroaren eta Ondasun Higigarrien Erregistroaren arteko interkonexio informatikoari buruz.
- ?? \* Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren eta B.J.K.O.-ren arteko 1998ko uztailaren 14ko Lankidetzaren

3.- Halaber, guardia Epaitegiek, eta baita gainontzeko operadore juridikoek ere, janari prestazioa finkatzeko orientabide taulak erabili eta hedatzearen erabilgarritasuna aitortzen da.

#### **5.4.- Biktimari informazioa ematea**

##### ***5.4.1.- Jarduerak eskaintzea: jokabide osagarriak***

Babes Agindu bat eskatzen duen biktimak guardia zerbitzuan dagoen Instrukzio Epaitegiaren aurrean agerraldia egiten duenean, lehenengo jarduera informazioa eman zaiola ziurtatzea izango da, babes aginduari buruzko informazioa termino erraz eta ulergarrietan emanaz eta baita Prozedura Kriminaleko Legearen 776 artikulua edukiari buruzko informazioa ere; eta, edonola ere, aipaturiko informazio hori eskura emateari ekingo zaio. Ondoren, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 7. atalean ageri diren izaera zibileko neurriak eskatzeko borondatea ote duen galdetuko zaio. Biktimaren Arretarako Bulegoa dagoen barruti judizialean, beronen funtzioen inguruko informazioa eta beronekin jarduteko moduari buruzko informazioa eskainiko zaio biktimari, eta horretarako, dagokion liburuxka edo antzeko azalpen dokumentua eman ahal izango zaio.

Biktimak audientzian neurri zibilak eskatzeko intentzioa agertu baldin badu, Epaitegiak berehalakotasunez jokatu beharko du ondoko azalpenei jarraituz, eta beti ere audientzia hasi aurretik:

- a) Biktimari galdetuko zaio ea biktimari berari edo bere familiari eragiten dioten neurri zibilak hartu diren aurretiazko prozedura zibilik ote dagoen. Erantzuna baiezkoa baldin bada, aipaturiko prozesuaren datu esanguratsu zehatzak jasoko dira.
- b) Halaber, audientziara askatasunez aukeratutako Abokatu batek lagunduta agertuko ote den galdetuko zaio. Erantzuna ezezkoa baldin

---

Hitzarmen Markoa, komunikazioen kanalizazio eta arintzeari buruz.

?? \* B.J.K.O-ren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren arteko 1998ko maiatzaren 27ko Lankidetzaren Hitzarmena, Zerga-Administrazioaren Estatuko Agentziak Epaitegiei eta Auzitegiei eman beharreko informazioaren arloan.

bada, ofiziozko izendapena prestatutako da araudiak ezartzen duenaren arabera, doako laguntza juridikoaren inguruko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6.3 artikuluan ezarritakoen arabera jokatuaz, prozesuko parteen arteko berdintasuna bermatzeko beharrezkoa jotzen denean.

#### **5.4.2.- Babes agindua ebasten duen autoaren jakinarazpena**

Behin autoa emandakoan, Epaitegiak jakinarazpen arrunta emango die parteei eta Ministerio Fiskalari.

Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 7. ataleko izaera zibileko neurriak barne hartzen dituen Babes Agindu baten autoaren jakinarazpena ematen zaionean biktimari, argi eta gabi eman behar zaio informazioa, termino errazak eta ulergarriak erabili, ondorengo edukien inguruan:

- a) Autoaren edukia, honek agintzen dituen neurri zehatzen ezaugarriak ere azalduz.
- b) Babes Aginduaren baitan dauden izaera zibileko neurriak 30 egunegongo direla indarrean, ondoren Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 7. ataleko 2. paragrafoko gainontzeko edukiaren berri emanez.

Era berean, babes agindua agintzen duen organo judizialak modu arruntean emandako jakinarazpenaz gain, aurreko paragrafoan deskribatutako jarduerak, ahal izanez gero, Biktimaren Arretarako Bulegoetan burutuko dira bulegoak dituzten barruti judizialean, zabalik dauden ordutegien barruan. Bestela, arestiko jarduerok babes agindua agindu duen Epaitegiak berak burutuko ditu.

3.- Babes agindua ebasten duen organo judizialak ahalik eta lasterren igorri beharko du Biktimaren Arretarako Bulegora, bulegoak dituzten barrutietan, erabakiaren kopia bat. Hala eta guzti ere, Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 8. atalean ezarritakoaren arabera dagokion Puntura ere bidali

beharko da eta baita Polizia Judizialera ere.

4.- Erasotzailearen auzibide egoeran eta espetxeko egoeran gertatzen den aldaketa ororen berri emango zaie bai biktimari eta bai Polizia Judizialari.

## **SEIGARRENA.- JURISDIKZIO-ORDENA ZIBILAK BIKTIMARI EMATEN DION BABESA**

### **6.1.- Lehenengo Instantziako Epaitegiak edota Familia Epaitegiak neurri zibilak berrestea, moldatzea edo indargabetzea**

PKLE 544 hiru. 7, 2<sup>o</sup> artikulua baieztazen duen moduan, babes aginduaren baitako izaera zibileko neurriak 30 egunez egongo dira indarrean. Epe honen barruan biktimaren edo bere ordezkari legalaren eskaeraz familia prozedura bat irekiko balitz jurisdikzio zibilaren aurrean, hartutako neurriek indarrean jarraituko dute demanda aurkeztu osteko 30 egunetan zehar. Hortaz, eskumena duen lehenengo instantziako epaileak berretsi, moldatu edo indargabetu beharko ditu neurriok.

Behin babes aginduaren baitan ebatsitako neurri zibilen berrespen, aldaketa edo indargabetzearen inguruko demanda jaso ostean, Epaitegi zibilak dagokion auzi zibil nagusiaren aurretiazko edo baterako kautela prozedura irekiko du.

### **6.2.- Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Epaitegi zibilen edo familia Epaitegien jarduerak**

#### ***6.2.1.- Jurisdikzio-ordena zibilaren papera***

Familiako bizileku barruko indarkeria egoeren prebentziorako, eta baita etxeko indarkeriaren biktimen babeserako laguntzeko ere, Epaitegi zibilek eta Familia epaitegiek duten paper garrantzitsua aitortzen da.

#### ***6.2.2.- Epaitegi zibilak etxeko indarkeria egoera baten berri izatea***

Familia prozesu baten jakitun den Epaile zibil batek badaki balizko

etxeko indarkeria egoera egon daitekeela atzean; jarraian azaldu bezala jokatu behar du:

- a) Biktimari babes aginduaren inguruko baldintza, eduki eta tramitazioaren berri emango zaio, eta baita barruti judizialeko Biktimaren Arretarako Bulegoarekin harremanetan jartzeko datu eta moduen berri ere, eta, bere kasuan, aipaturiko agindua eskatzeko eskaera-orria emango zaio.
- b) Prozedura Zibileko Legearen arabera burutu beharreko jardueri edota Kode Zibileko 158. artikulukoei kalterik egin barik, Epaitegi Zibilak partikular nabarmenen testigantzak igorriko dizkio Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko Osoko Bilkurako apirilaren 9ko 3/2003 Instrukzioak ezarritako banaketa arauen arabera aipaturiko nukleo familiar konkretuaren indarkeriaren jakitun den Instrukzio Epaitegiari.
- c) Eta, nolana ere, Ministerio Fiskalak organo judizial penalari dagozkion jarduerak bultzatzeari ekingo dio.

Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluren arabera Instrukzio Epaitegiek duten eskumen propioari kalterik egin barik, biktimak babes agindurako eskaria auzia ezagutzen ari den Epaitegi zibilean aurkezten duenean, jarraian azaldu bezala jokatu beharko da:

- a) Balizko egoera hauetan, organo judizial zibilak berehala igorriko dio eskaera guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileari. Ondoren, dagozkion Instrukzio Epaitegiak Epaitegi zibilari igorriko dio eskaturiko babes aginduaren inguruan harturiko erabakia, eta baita dagozkion xedeetarako garrantzitsu izan daitezkeen bestelako erabakiak ere.
- b) Edonola ere, Epaitegi zibilak Prozedura Zibileko Legearen 771.2 artikuluen edota Lege beraren 773. edo 774. artikuluen babespean dauden neurriak har ditzake.

## **ZAZPIGARRENA.- ORGANO JUDIZIAL PENAL ETA ZIBILEN ARTEKO KOORDINAZIOA**

Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren eskumen propioei eta Segimendu Batzordean parte hartzen duten gainontzeko erakundeen eskumen

propioei kalterik egin barik, atal honetan esparru honetako jarduera gida dezaketen irizpide eta printzipio zehatzak ageri dira.

### **7.1.- Organo judizial zibilak aurretiaz adostutako neurrien aldaketa**

1.- Izaera orokorrarekin, eta Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 7. atalean ezarritakoen arabera, Babes Agindua ebasten duen organo penalak ezingo ditu aurretiaz jurisdikzio-ordena zibileko organo batek adostutako izaera zibileko neurriak aldatu, beti ere lehentasunekoak diren neurri penalek neurri zibil horiengan eragin ditzaketen ondorioei kalterik egin barik.

2.- Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikulua 7. atal berearen arabera, Babes Agindua ebasten duen Epaile penalak Epaile zibilak harturiko neurriak aldatu edo osatu ahal izango ditu salbuespen kasu batzuetan, Kode Zibileko 158 artikulua aplikatuz eta adingabekoaren interesaren mesedetan. Nolanahi ere, organo penalak autoan jaso beharko du aipaturiko neurriok behin-behineko izaera dutela eta auzia ezagutzeko eskumena duen organo judizialak emandako erabakiari kalterik ez diotela egiten.

Hori horrela gertatzen baldin bada, Babes Agindua ebasten duen organo judizialak ofizioz igorri beharko dizkio auzia ezagutzen duen jurisdikzio zibileko organoari: Babes Aginduaren Eskararen testigantza, Babes Aginduaren Autoa, biktimari bidalitako (eta burutu zen eguneko data jarrita duen) autoaren jakinarazpen eginbidea eta beharrezkotzat jotzen dituen beste hainbat xehetasun, begi bistakoa den "Premiazkoa: Etxeko Indarkeria" ikur argigarria duelarik.

Aipaturiko testigantza babes autoa ebatsi osteko hurrengo lanegunean jaso beharko du organo zibilak. Hau ezinezkoa den kasuetan, bai Epaitegia beste barruti judizial batean dagoelako edo bai beste baldintza batzuk direla medio, nolanahi ere, organo penalak, bide arruntez bidaltzeaz gainera, fax bidez edo bide telematikoaz igorriko du testigantza.

3.- Behin auzia ezagutzen duen organo judizial zibilak testigantza jasotzen duenean, honek hurrengo lanegunean parteei eta Ministerio Fiskalari emango

die beronen berri; eta hauek egoki deritzaten auzibide jarduerak bultza ditzakete, Kode Zibilaren 158. artikularen arabera organo zibilak berak ofizioz izan behar duen jarduerari kalterik egin barik.

## **7.2.- Aurreiazko prozesu zibilik ez egotea**

1.- Neurri zibilen berrespen, aldaketa edo indargabetzea eskatzeko demanda Dekanotzan edo epaiketa zibilen tramitazioa arintzeko sortutako beste edozein Zerbitzu Komunetan aurkez daiteke.

2.- Lehenengo Instantziako Epaitegiak eta Instrukzio Epaitegiak dauden barruti judizialetan, guardia egoeran zegoelako babes agindua ebatsi zuen Epaitegia izenda dezakete banaketa arauak neurri zibilen berrespen, aldaketa edo indargabetzeko eskumendun gisa.

3.- Dekanotzak, eta baita epaiketa zibilen tramitazioa arintzeko sortutako Zerbitzu Komunak ere, premiazotasunez eta lehentasunez burutuko dituzte jite honetako auziekin zerikusi duten jarduerak. Prozeduran, begi bistakoa den "Premiazkoa: Etxeko Indarkeria" ikur argigarria agertuko da.

4.- Epaille zibilek lehentasuna eman beharko die auzi hauen tramitazioei, legediak aurreikusitako epeak zehatz-mehatz betez.

5.- Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordea entzuna izan ahalko da prozedura zibilen tramitazioa arintzeko ezar daitezkeen tresna legalen garapenerako araudien onarpenaren inguruan.

## **ZORTZIGARRENA.- TRESNA JURIDIKOEN ETA LANKIDETZA PROTOKOLOEN BIDEZKO GARAPENA**

Erakunde eta administrazio publiko bakoitzaren baitatik sortutako tresna juridikoen bitartez, bakoitzari dagokion eskumen esparruaren barruan, Protokolo honetan jasotako printzipio eta irizpideak garatu ahal izango dituzte.



Halaber, barruti judizial bakoitzean, edota probintzia esparruan zein Komunitate Autonomo esparruan, babes aginduaren aplikazioa hobetzeko lankidetzaren protokoloak ezarri ahal izango dira; eurotan parte hartu beharko dute Epai Dekanoak ordezkaturiko Epaileen Batzordeek, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko ekainaren 7ko 5/1995 Araudiaren 47.4, 1º artikuluan zerrendatutako erakundeek, eta baita gizarte-zerbitzuez edo hiritarren osasunaz arduratzen diren erakunde publikoek ere; guzti hori, Protokolo honetan ezarritako irizpideen markoaren barruan.